Km hm dam m dm cm mm

SISTEMA MATERIALAK-ARIKETAK

1. Likido batek dentsitate hau du: 1'3 g/ml.
   a) Kalkulatu zer masa izango duen likido horren litro batek
   b) Kalkulatu zer bolumen hartzen duen likidoaren 1 kg-eko masak

(Emaitzak: 1300 g eta 769'2 ml)

2. Metalezko barra batek 27 kg-ko masa eta 0'01 m^3-ko bolumena ditu; beste batek, 100 mL-ko bolumena eta 890 g-ko masa.
   Adierazi bi barren dentsitatea, g/cm^3-tan.

(Emaitzak: 2'7 eta 8'9 g/cm^3)

3. Taula honetan, hiru metal desberdinen masaren eta bolumenaren datuak jaso dira:

	A metala	B metala	C metala
m (kg)	22,6	3,9	10,8
V (L)	2	0,5	4

   a) Kalkulatu metal bakoitzaren dentsitatea
   b) Metal horien masa berdineko lagin bana hartuz gero, zeinek izango du bolumen handiena?
   c) Metal horien bolumen berdineko lagin bana hartuz gero, zeinek izango du masa handiena?

(Emaitzak: 11'3, 7'8 eta 2'7 kg/L; C metalak; A metalak)

4. Kobre-barra batek 2 Kg-ko masa du. Jakinik kobrearen dentsitatea 8'9 Kg/L dela, ebatzi:
   a) Kalkulatu kobre-barraren bolumena
   b) Zer masa izango du 800 mL-ko bolumena duen kobre-barra batek?

(Emaitzak: 0'225 L; 7'12 Kg)

5. Kopiatu merkurio metalari dagokion taula hau koadernoan eta osatu falta diren datuak.

m **(g)**	***V*** **(mL)**	***d*** **(g/mL)**
13600	**1000**	
20400		
34000		
	500	

$\frac{13600\ g}{1000\ mL}$ = 13,6 g/mL
Denetan d berdina!

(Emaitzak: 13'6 g/mL; 1500 mL; 13'6 g/mL; 2500 mL; 13'6 g/mL; 6800 g; 13'6 g/mL)

6. Kopiatu taula hau koadernoan, eta osatu.

	Alkohola	Olioa	Gasolina
m (g)	607,5		140
V (mL)		1000	200
d (g/mL)	0,81	0,92	

(Emaitzak: 920 g; 750 mL; 0'7 g/mL)

7. 100 mL-ko bolumena duen probeta batek, hutsik, 200 g-ko masa du. Glizerinaz bete ondoren, probetaren masa 326 g da.
   a) Kalkulatu glizerinaren dentsitatea
   b) Tamaina berdineko bi bola sartuz gero, bata burdinazkoa, eta bestea aluminiozkoa, zeinek igoaraziko du gehien glizerinaren bolumenaren balioa?

(Emaitzak: 1'26 g/mL; Bi bolek ur-kantitate bera desplazatuko dute)

8. 40 mL ur duen probeta batean, burdina-bloke bat sartu da, eta likidoaren maila 90 mL-ra arte igo da.

   a) Zein da burdina-blokearen bolumena?
   b) Kalkulatu burdina-blokearen masa, jakinik burdinaren dentsitatea 7'9 g/mL dela.

(Emaitzak: 50 mL; 395 g)